

HAURREN AISIALDIRAKO PARKEA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Haurren aisian espezializaturiko zentroa.

MERKATU-DATUAK

90eko urteen erdialdera aisia-kontzeptu berria sortu zen txikitxoentzat: haurrek beren aisialdiaz gozatzeko jolas eta ekintza asko eskaintzen dituzten parkeak. Gaur egun haur-parkeek 36 milioi euro baino gehiago fakturatzen dituzte Espainian. Bederatzi kate daude 220 establezimendurekin Espainia osoan banatuta. 60.000 eta 420.000 euro arteko inbertsioak behar dira. Honelako zentro bat jartzeko gutxienezko eremua 100 eta 4.000 m² artekoa da. Aurreikuspenen arabera, sektore honek goranzko joerari eutsiko dio gerora ere, espezializazioan, segurtasunean eta berrikuntzan oinarrituta; hori uste dute behintzat frankizia-sektoreko profesionalek, era honetara lan egiten dutelarik kate gehienek (Txiki Park, Camelot Park, Planeta Magic...)

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Zerbitzua*

Nahiz eta zerbitzuak haurrentzako izan (batez besteko adina urtebete eta 12 urte artekoa), bezero erabakigarriak gurasoak dira. Hauek balioesten dituzten faktoreak berriz: barietatea aisialdirako eskaintzan, instalazio eta tresnerien segurtasuna, eta haurren zaintza. Oso balioetsitako beste alderdi batzuk bertara iristeko eta autoa uzteko erraztasuna dira.

□ *Sustapena*

Marketin zuzena da estrategiarik eraginkorrena. Horretarako oso garrantzitsua da bezeroen datu-basea kudeatzea, aldizka informazioa bidaltzea, ekitaldi sozialetara gonbidatzea. Ohikoa da harreman publikoak lantzea negozioa sustatzeko (auzoko jaietan laguntzea, bertako telebistaren haur-saioretan parte hartzea, haurren kirol-taldeak babestea, etab.) Azken urteotan sustapen eraginkorra ari da gertatzen zerbitzuren bat dohainik eskaintzea gurasoei: irakurketa espezializatua, TV pay per view, etab.

Plan Operatiboa

□ *Lokala*

Kokapenak haur-parkearen araberkoa izan behar du. Lokal zabalak komeni dira, bertara iristeko eta aparkatzeko erraztasunekin. Irekitzeko baimena emateko udal-araudiak kasu bakoitzean ezartzen dituen baldintzak bete behar dituzte.

□ *Eremua*

100 m²-tik 4.000 m²-raino. Bi gune izan behar ditu bereizita, bat janari eta taberna-zerbitzuetarako, eta bestea aisiarako. Azken honetan normalean bereizi egiten dira txikientzako lekua (0-4 urte bitartekoentzat) eta besteentzako lekua (12 urte artekoentzat).

□ *Ekipamendua*

Parke-motaren arabera: 1) Haur-parkeak egitura psikomotrizetan oinarrituak. Leku zabalak eskatzen ditu eta inbertsio handia ekipamenduetan: zirkuitu irekiak: pista amerikarrak —gainjarritako bi edo hiru mailaz osatuak—, bola-igerilekua, txirristak, arrapalak eta tunelak, egitura puzgarriak, ludoteka, etab. 2) Parkeak leku irekietan: karrusel erako makinak, saskiak, indar-makinak, erraldoi puzgarriak, etab.

Giza baliabideen plana

Ez da titulazio berezirik eskatzen, baina garrantzitsua da haurrak zaindu eta artatzeko prestaturiko langileak izatea. Aisialdiko begiraleak edo sustatzaile sozio-kulturalak izatea ere komeni da. Taberna eta harrera-zerbitzuetarako langileak ere behar dira.

Inbertsio-plana

Negoioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea.

60.000 eurotik aurrera. Sarreraren aurreikuspena establezimenduaren zerbitzu-eskaintzaren arabera izango da. Lokal finkatuek 25-40 gizarte-ekitaldi eta jaialdi egiten dituzte hilean, batez beste 2 orduko iraupenez. Prezioak estandarizatuta daude eta 6-18 euro artean dabilta haur bakoitzeko, beste zerbitzu batzuk aparte. Kasu guztietan garrantzitsua da sarrera eta gastuen aurreikuspena egitea jarduera abian jarri aurretik.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej->

[gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es](http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es)

<http://www.ej->

[gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1](http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1)

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

□ *Haurrentzako miniparkea*

Enpresaburu txikiek jolas-aretoen eta haur-parkeen arteko hibridoak sortzera jotzen dute, eredu honek inbertsio txikiagoa eskatzen baitu eta harrera ona dute gurasoen artean.

□ *Bezeroen leialtasuna lortzea*

Funtsezkoa da bezeroekin harreman iraunkorrak lortzea. Ongi tratatzen baditugu, bezero berriak ekarriko dizkigute. Baina, nor da bezeroa? Haurra ala gurasoa? Haurrek ondo pasa behar dute parkean, baina gurasoek erabakitzen dute hara eramatea. Beraz, nagusiak gogobetetzeko modua ere pentsatu behar dugu (taberna egokia, aldizka informazioa bidaltzea, jaietara gonbidatzea, beren intereseko ekitaldiak antolatzea, etab.).

□ *Segurtasuna, batez ere*

Batez ere instalazioen segurtasuna balioesten dute gurasoek. Horren haritik, gaur egun araurik zorrotzenak betetzen dituzten ekipamenduak saltzen dituzte hornitzaileek. Gure aldetik, begiraleek haurrak ongi zaintzea ziurtatu behar dugu.

HELBIDE INTERESGARRIAK

Feriak/Biltzarrak:

Exponadal. Haur eta gazteen aisialdirako erakusketa. IFA

<http://www.feria-alicante.com/calendario2001.htm>

Induferias. Jolas-parke, haur-parke, zorizko jokoen makina eta osagai laguntzaileen Nazioarteko Feria. Valentziako Feria.

<http://www.feriavalencia.com/induferias>

EXPOOCIO. Aisialdiko Feria-IFEMA

Parque Ferial Juan Carlos I. 28042-Madril

<http://www.expo-ocio.es/>